


# Zirauna, puskatzen den sugea ote?

Migel Mari Elozegi\*



Eskualde kantauriarrean nonahi eta mediterraniarrean leku heze eta freskoetan agertzen da, lehorrean falta litekeelarik. Pirinioko leku altuenetan, azkenik, ez da aurkitu izan.

Banaketa

## FITXA TEKNIKOAK

### Zirauna

Espezia:	<i>Anguis fragilis</i>
Familia:	angidoak
Ordena:	eskamosoak
Klasea:	narrastiak

**B** iologiaren munduan buru-belarri sartuta ez dagoen jendeari kontrakoa iruditu dakioken arren, izen zientifikoek askotan esanahi argi eta adierazkorra dute. Horren adibide izan daiteke hain zuzen ere, *Anguis fragilis* ziraunak duen izen zientifikoa. *Fragilis*, izen espezifikoa


adierazten duenez, puska daitekeen edo zatiren bat galdu dezakeen animalia da zirauna. Izen hau oso egokia da, ziraunak, sugandila eta muskerren antzera, autotomizatzen gaitasuna duelako, buztana askatzen, alegia. Era horretan, zenbait arrisku egoeratik bizirik irten daiteke eta gero galdutako puska berriztatu. Generoa izendatzeko erabiltzen den *Anguis* izena, ordea, ez da beharbada hain zuzena. *Anguis* latinez sugea da, eta zirauna, zalantzarik gabe, suge itxurako narrastia da baina sugeetatik argi eta garbi bereizten dituen zenbait ezaugarri ditu: sugeek ez bezala, ziraunak betazalak ditu eta begiak itxi egin ditzake; bestalde, ezkatzen azpian gordeta duen tinpanoa guz-



tiz garatuta dago, eta azkenik, puskatutako buztana neurri batean bederen, berriztatzeko gaitasuna du. Beraz zirauna, puska daitekeena agian bai, baina ez da sugea, hankarik gabeko muskerra baizik. Helduek, gutxitan dute 30-40 cm-tik gorako luzera. Horietatik erdia baino gehiago buztanari dagokiona da, puskarik galdu ez badute behintzat. Burua sugandilak duenaren antzekoa da, motza eta gorputzaren lodiera berdina duenez, ia ez da bereizten. Zenbait herritako sinetakerien kontra, saurio honek ikusmen dexentea du eta ez da itsua inondik inora ere. Berta-ber-

Emea, saihetsak, sabela eta batzuetan bizkarrezurreko lerroa ere, ilunagoa edukitzeagatik ezagutzen da.





Zirauna ugaria da, Euskal Herriko isurialde atlantiarrean batik bat.

tatik ikusiz gero, begi txiki eta ilunetan nini arre gorritzeta eta iris beltza atzeman daitezke.

Gorputza, berriz, luzea, trinkoa eta zurruna da. Nahiz eta zirauna lau hankadun arbasoetatik eratorria den, ez du hanken aztarnarik ere ageri, ezaugarri horrek eskin-koetatik bereizten duelarik. Ezkata leun txiki distiratsuz jantzita dago eta kolorazioz aldakor samarra izan ohi da. Narrastietan ohikoa denaren aurka, emea arra baino koloretsuagoa da. Oro har, urre zahar kolorekoak, oliba arreskak, arre argiak, edota gris zilarkarak dira. Emearen saihetsak, sabela eta batzuetan bizkarrezurreko lerroa ere ilunagoak dira arrarenak baino. Gazteak tamainaz txikiagoak eta kolore-contraste handiagoa izateagatik bereiz daitezke.

Landaretza ugariko lekuak maite ditu. Zelai, baso-inguru, edo sastrakadiak bezalako leku hezeetan ikus dezakegu eta baserritarrek maiz topatzen dute narrasti hau belarretan lanean ari direnean. Itsas-mailatik 2.000 metrora ager daiteke, gure Herrian altitude er-

tain edo baxuak gustukoago baditu ere.

Ibilerari dagokionez, motelantza dela esan behar da. Bere burua arriskuan ikusten badu belar artean uhinen modura irristatuz bizkor ezkuta badaiteke ere, normalki poliki ibiltzen da. Harritarte, goroldio, sastrakadi eta usteldutako enborren azpiak dira bere ohiko gordelekuak. Ofidioen modura, "usaintzeko" mingaina ateratzen du, baina ahoa zertxobait zabaldu egin behar du, ez baitu sugeek horretarako duten zirrikitua.

Ugalketa udaberriaren emango da. Elkarren artean lehia egin ondoren ar bizkorrenak emea lepotik helduko du eta bien gorputzak kiribilkaturik, bikotea kloakak batuko ditu kopula burutzeko. Era horretara kokatuta daudelarik ernalketa arraren hemipenea sartuz gertatuko da. 11-13 aste beranduago, emea 6-20 kumez erdituko da. Narrasti hau obobiparoa da, hau da, arrautzak amak barruan garatzen ditu, jarriak diren momentuan zabaltzen direlarik. Horrela, arrautzak tenperatura egokian edukitzeaz gain, etsaiek edo eguraldiak ez zapuztea lortzen dute.

Kume hauek 7,5-9 cm dituzte jaiotzerakoan eta jadanik aipatu den bezala, helduak baino koloretsuagoak dira. Arre horiskak dira eta deigarriak dira saihetsean eta bizkarrean dituzten lerro beltzak. Kume hauek 3-4 urte beranduago izango dira sexualki helduak. Animalia hauen biziraupena luzea da eta 30 urtetik gora bizi daitezkeela baieztatu da. Zenbait autorek etxean 54 urtez bizitu den ale bat ere aipatzen dute.

Angido hauek neguan gorde egingo dira hibernatzeko. Horretarako, lurpean 4-5 hil pasatuko dituzte urria eta martxoa bitartean. Normalki, zulo naturala edo mikro-ugaztunen batena aukeratzen dute eta kiribilduta letargian erortzen dira. Batzuetan, espeziekide morderkak pasa dezake negua elkarre-

kin eta beste narrasti edo anfibio batzuekin batera ere egin dezakete.

Zirauna espezie eurasiatiko arrunta dugu. Iberiar Penintsulako hegoaldean, Irlandan eta Europan 60° paralelotik iparraldera falta bada ere, kontinente guztian eta gure eskualdean ere ongi banatutako animalia da. Ugaria da Euskal Herriko atlantiar isurialdean eta eskasagoa mediterraniarrean, Araba edota Nafarro Beherako lurrik lehorrerenetan urriagoa da oraindik.

Elikadurari dagokionez haragijalea da. Bareak, zizareak, marraskiloak, armiarmak eta intsektuak jaten ditu, ehizean zein irensteko orduan patxada handia erakutsiz. Bere etsaien artean trikua, azeria, basurdea, mustelidoak, hegazti asko, eta sugeak nabarmentzen dira. Eta giza-



Kopula burutzeko, arrak emea lepotik hozkatzen du eta gorputzak kiribilkatzen dituzte.

kirik ez? Denetatik entzun ahal izan dugu. Zenbaitek suge itxurakoa eta fama txarrekoa izateagatik akatu egiten du. Beste askok zorionez, espezie ezaguna eta onuragarria delako edo besterik gabe mundu honetan suge itxurako animaliak ere bizi daitezkeela onartzen duela, errespetatu egiten du.

\* **Biologoa.**

